

BARBAR(I)A

LUCIEN ETXEZAHARRETA



«ZER pitokeria gerra!», Jacques Prévert-en hitz horien errepikatze gogoa dut. 'Barbara' poeman bezala, zakur leher eginen gorputzen gisala Oues-

sant uharteko parrean badoatzi, uhainen kulunkan, zorion izaten ahalko ziren irudimen etsigarriak. Maitasun soil bat, Barbara, barbariak erahila. Gerrak gizadi guzira erahiltzen du bakar baten bidez.

Bere hegalean azpian, nork derabila gerla? Eraikitzen utzi ditugun estatu indartsuak, gauaren meategietan heriotz indarren nagusitasun guzizalduaren lantzen ari izan dira. Armada, berez, gure bizien jaun eta jabe dena, scenarioidazten ari da, apokalipsia programatuz.

Pariseko metroan, anarkisten pegatinak: hilarri militar batetarako kurutze xuri lerroakadak eta goian, publizitate baten parodia, «armada, gerra, gure bezeroek dizute hori hobekien aipatuko»...

Berandu gabiltza: ezpatak ez dira golde bilakatu. Golde izan direlarik ere, ildoetarik atera uzta ez dira denentzat izan. Gose eta injustiziaren uzteak goldeak ezpata arrabihurtu dituzte.

Gerlarik ez dadin izan inork ez omen daki zer egin. Gezurra. Gerla tresnen sortzaile diren estatuak desegin behar dira. Nork nahi du? Injustizia uzta ereileak gelditu behar dira. Nork nahi du?

Ezpata golde, maitasun erahilaren oroimen samina ezpainetako irrian. Oroit hadi Barbara.

Komunikabideak Golkoan

JOXERRA GARZIA



GOLKOKO gerra minutuz-minutu gure emisoran, entzuten dut dialeko puntu guztiotan. Gure telekanalean bezalako gerrarik ez duzu besteetan topatuko, zappingean nabilela telebista pribatu nahiz publikoetan. Dena prest dago munduko ikuskizunik handiena zuzen-zuzenean, bizi-bizian (heriotza bizian ematerik balego) eskeintzeko.

Armagintza ezezik komunikazioaren teknika ere oso aurreratua ageri zaigu, guardasolak bezala bildu, eta batetik bestera eraman daitezkeen antena parabolikoak lekuko.

Entzun, amerikarrek beren lehen erasoan antena horiek bidenabar suntsituko ote dituzten entzuten dut, ez omen zaiela komeni haur elbarri kiskalien irudirik munduan zabaltzerik. Ez dakit nik. Ikuskizun bihurtu diguten gerra honetan komunikabideek hartu duten jokabideak zer pentsaturik franko eman dit.

Telebistari begira ikusten ditut nik filme honetako protagonista nagusiak. Kamerak garaiz itzali eta mikroak hasieratik itxi izan balitzaie ez ziren agian iritsi diren punturaino iritsi izango, telebistaz agertzen ez dena apenas erreala baita.

Ez dakit «Pattom» filmean baino irudi hobetik emateko gauza ote diren teknologia harri-garri horiekin. Dena dela, nik ez dut telebistaz gerrarik ikusi ez ikusterik nahi.

ABC

Euskal zalantza

EAJ-EE hitzarmenaren helburu 'programatiko' gehienak —konstituzioan lekurik ote duteneko zalantza handia alde batera utziz— ez daude euskal erabakien esparruan, baizik eta Gobernu zentralarekin akordioa behar zuketela eta, zenbaitetan agian, Gorteek bozkutatuko lege bat. Bere bideratasuna beraz, PSOE Elkarteko Exekutibatik kanpo dagoelarik, ia, ia hutsa da. Eta gainera, lekuz kanpoko adierazpenak egiten hasten badira, Treviñoko Konterri gaztelarraren erreibindikazioa edo Gorteek dagoeneko errefusatu-tako pretentsioak berraiptzearen gisakoak, hala nola barruti elektoral europearra, geure buruari galdera hau egin diezaiogegu: ea benetan nahi ote duten akordio bat.

EDITORIALA / 1991-1-17

EL CORREO ESPAÑOL

Eskenatoki kezkagarria

Korapiloaren askapena horrela zegoen aurrez finkatua; EEK porrot egindako triparti-

HEMEROTEKA

toari emandako aportazio doktrinalak, Ramon Jauregi eta bere kideak sartzea bideratu beharrean, zaildu egin duelako agra-bantearekin. Batzuren eta besteren malgutasun ezak larriki kaltetu ditu Gobernu espektatibak, porrotera bidaliaz babes gehien zuen bidea, arrazoizkoena eta integratzaileena. Eta hori une oso kezagarrian, nazioarteko zalantzak irudikatua, atzerakada ekonomiko arrastoekekin eta ETaren eraso bortitzarekin, zeinak Irurtzun-Andoain autobidea aukeratu duen instituzioei txantaia egiteko objektutat.

EDITORIALA / 1991-1-17

EL SOL

Naufraگوen salbamendua

Horrela bete liteke kronista batek gizarteari «adar jotzea» erizten ziona, eta zaila da gizarteari azaltzea, 1986ko zatiketa Cainista eta mingarriaz geroztik eta EAK EAJri zuzendu dion hitzaldia eta gero (zeinak bere us-tez *aberrisaltzaile* bezala jokatu duen), orain gauzak ezadostasun dialektiko hutsean geratzen direla, ia lurrinduak. (...)



ZULET / EL DIARIO VASCO / 91-1-17

Ez bada EAJk, *naufraگوen salbamenduar*ekin, magma nazionalista berri bat eraikitzea nahi duela, zeinean gutxika, gutxika, hurbilen dauden alderdiek bat egingo duten. Denborak esango du.

I. MAYOR / 1991-1-17

EL PAIS

Arrazoiaren etsipena

Ezin dira alde batera utzi gerrak izango dituen ondorioak.

Irak-en hondamenak, ez luke bakarrik Saddam Hussein-ekin bukatuko; oso garestia litzateke irakiarrentzat. Gizabanakoek sufrimenduaz gain, berez istitututako gizarte bezala desagertzea, ez litzateke inondik inora desiragarria izango.

(...)

Islamiar fundamentalismoaren bultzada jasanezinak. *Mare Nostrumaren* egonkortasunerako ezinbestekoa den erregimen politikoen normaltasuna suntsitzeko mehatxua dakar.

EDITORIALA / 1991-1-17

ZUZENDARIARI

Biolentoak beti biolento

Ba omen dabil jende bat azken denbora honetan «pakearen» alde lanean tinko. Hoiek beti esan duten arabera indarkeria inoiz ez da justifikatzen, indarkeria guztiak berdina dira eta beraz, guztiak gaitsetzi egin behar dira diote, hau guztia asetu arte errepikatu ezik, «paktukoek» deitzen diren hoiek, benetan astunak izan dira biolentoen izenburua besteei ezartzen.

Astunkeria honek zerbait susmagarria zekarrela erraza zen pentsatzea, eta inoxentegia izatea bada ere, ni oraingoan konturatu naiz zertan datzan ustelkeria horrek Golkoko krisiari esker.

Zein aldakorra den gizakia!! Golkoko krisia dela eta, hain baketi ziren «paktuko» buruzagiak Espainiako gobernuak tropak bidaltzearekin bat zetozen (Idigorasek bidalitako bake me-zutik aldenuz). Batzuk zioten: gudurako itsasuntziak ontziak pake misioan bidal-

tzen ditugu (Felipe Gonzalez), orain hasten naiz ulertzen zelako pakea duten buruan, beste batek, (Bandresek) bere garai onetan esaten zuenari zin egiten zion «nere arma toga da»; nik, ulertzen jarraitzen dut eta toga hori berdea delakoan nago (goardia zibilak eramaten duena bezalakoa), eta horregatik ikusten dut gero eta argiago zertan datzan beraien pakea.

Baina zalantzaren bat edukiko banu ere, guztiz argituta geldituko litzaidake Ardantzari jaramon eginez. Berak askotan esaten du: «pistola eskuan daukanak ezin du bakeari buruz hitz egin», eta inoxente naizenez orain ulertzen dut zergatik hautatu dituen berak bukeak eta kainoiak eta ez pistolak, zer, bakezale jarraitzen izateko? edo eta indarkeria mota guztiak gaitsetzeko?

Ba dut bai «galderatxo» bat gotzaiantzat: ze alderdian pentsatzen zuten bo-toa bideratzeko asmotan atera zutenan pastoral hura?, beraiek zer ziren: ni bezala inoxenteak edo agian inoxentegiak?.

Funtsean dagoena zera da, nola ulertzen dugun pakea, eta nik neuk honela ulertzen dut: askatasuna, berdintasuna, justizia eta kultura... eta... arraioa!!! oraintxe ohartzen naiz zergatik deitzen zidaten biolento, fanatiko, terroristak... eta horrelako gauzak irakasleak edukitzeko eskubidea aldarrikatzen nuenean, ohartzen naiz ere horrek justizia, berdintasuna eta kultura dakarrela, eta hori ukatzen didatenean direla betiko Biolentoak, bai unibertsitatean, bai Jaurlearitza eta baita ere Golkoan.

MIKEL ALDASORO (ALGORTA)

Oharra:

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia argi eta garbi agertu beharko dira gutunean.

PERTSONAIA



Txiki Benegas

Algara bihurtu da aurpegi serio, lau urteko maitasun eta amodio. Apurtu Euskadiko Ezkerra medio, gaur arte egindakoak ez al du balio, Larrosa gorriari kiratsa dario.

XABI AJURIA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea: INMA GOMILA

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak: NEREA AZURMENDI LUCIEN ETXEZAHARRETA IÑAKI URIA

Publizitatea: KORNELIO ROTETA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E
Lege Gordailua: SS 800/90

HELBIDEAK

Egoitza soziala eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1 / 20010 Donostia / ☎ 45 59 57 / Faxe: 46 90 27
Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea, 01-02 Pabiloak / 20160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxe: 36 54 93
Publizitatea: Loiola, 14-1.3 / 20005 Donostia / ☎ 42 69 96 / Faxe: 42 93 18
Araba: San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxe: 23 38 73
Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78/79 / Faxe: 17 80 77
Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1.ezk. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxe: 423 94 60
Lapuri / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxe: 59 25 75 11